

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAK 25 URTE. IRAGANA, ORAINA, GEROA.

25urte, mende laurden bat, belaunaldi bat... denboraren 25. igarotze saihestezina neurtzeko modu desberdinak, zeinek gizakiak denboraren arintasuna berenganatzeko sortutako formulak baino ez diren. *Tempus fugit* esaera hori erabil daiteke kasu honetan, AHM-ren ibilbidea atzo bertan hasi zela baitirudi.

Ez zen atzo hasi, ordea, orain dela 25 urte baizik, eta gure ibilbidea hasi zenetik mende laurden bat bete dugun honetan, balantzea egiteko garaian oroitzapenak agertzen zaizkigu nonahi. Askotan, izan zitekeenaren oroitzapenak dira, eta zergatik ez esan, izan zena eta egun denarena.

Ezinezkoa da gaur egun gaudeneraino heltzen lagundu duten pertsona guztiak ahaztea, haien ametsak, haien ezagutzak, eta haien asmo onak. Egin beharreko zerrenda luzea izango litzateke eta horregatik ez da zilegizkoa izen batzuk soilik aipatzea. Haiei guztiei, AHM-rekin modu batean edo bestean lan egin dutenei, gure eskerrik biziena.

Joan den mendeko 70. hamarkadan, bere herriaren iragana berreskuratzearekin arduratu ziren gazte altzatar batzuek ereindako hazi hura 1986. urtean ernatu zen.

Urte horretan sortu zen Altzako Historia Mintegia, urte horretan ere sortutako Casares Kultur Etxearen baitan, batzorde gisa. Hasierako helburua xumea zen, baina handizalea: Altzaren historiarekin loturiko dokumentuen, argazkien, testuen... bilketa. Historia bere zentzu zabalenean, bai denboran bai espazioan. Guztiarekin ere, herri baten memoria ohoratzeko modu bat baino ez zen, udal izaera kendu zioten herriarena.

Denboraren poderioz, erronka eta jarduera berriez aberastu egin da helburu hori, presarik gabe, gelditu gabe; batzuetan bihozkada batez eraginda, eztabaida sakonen ondorioz besteetan.

Ez ditugu horiek hemen zerrendatuko, hau ez da lekua, luzeegia litzateke eta harroa ere bai. Baina egokia da, ordea, AHM-k egingandako ahaleginaren aldarrikapena egitea, bere lana ezagutu duten

pertsona eta entitateek aitortzen diotena.

Denak ez dira gauza onak izan, jakina. Itzalak ere izan dira, eta batzuetan gainera ilunak eta sakonak. Elkarteen sendotasuna, ordea, zailtasunen aurrean frogatzen da. Haietatik AHM indartuta atera zen.

Esateko asko geratu dira esan gabe. Hala izan behar zuen. Ezinezkoa da 25 urte lerro gutxi batzuetan laburtu. Oroimenaren ahuleziari aurre egiteko arrazoia eta zientzia dira tresnarik hoberenak, baina beharrezkoak dira ere bai gertuenarekiko, gurearekiko sentimendua eta maitasuna. Abiapuntu horiekin azken emaitza eskuragarri dago.

AHM guztiei zabaldutako bide horretan jarraitzea nahi genuke, elkargunez beteriko bidean.

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA

25 AÑOS DE ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA. PASADO, PRESENTE Y FUTURO

25 años, un cuarto de siglo, una generación... diferentes formas de medir el ineludible paso de los años que no son sino fórmulas pergeñadas por el hombre en un intento de hacer suya la levedad del tiempo. En nuestro caso cabría decir aquello de tempus fugit, porque no parece sino ayer cuando AHM comenzó su andadura.

Sin embargo, no fue ayer, fue hace ya 25 años, y en este cuarto de siglo transcurrido desde el comienzo de nuestra andadura, la hora del balance se presenta llena de recuerdos. Recuerdos en muchos casos de lo que pudo haber sido, y por qué no decirlo, de lo que fue y de lo que es.

Imposible olvidar a todos aquellos y aquellas que con sus sueños, sus ilusiones, sus conocimientos y su buena voluntad han colaborado a llegar hasta donde hoy nos encontramos. La lista sería extensa y por ello injusta su personificación. A todos los que de una manera u otra han colaborado con AHM, el más profundo agradecimiento.

Aquella semilla sembrada en la década de los 70 del siglo pasado por unos jóvenes altzatarra preocupados por la recuperación del pasado de su comunidad germinó en 1986.

Nació con una estrecha relación a la Casa de Cultura de Casares, cuya andadura daba comienzo por las mismas fechas, la Comisión de Antecedentes Históricos, embrión de Altzako Historia Mintegia. Su objetivo era simple pero ambicioso: la recopilación de documentos, imágenes, textos... relativos a la historia de Altza. Una historia en sentido amplio, no circunscrita ni en el tiempo ni en el espacio. Con todo, no era más que una forma de honrar la memoria de un municipio que dejó de serlo.

Este objetivo ha ido enriqueciéndose con nuevos retos y actividades, sin prisa pero sin pausa; en ocasiones fruto de impulsos, en otras, resultado de profundas disquisiciones.

No es este el lugar para su enumeración. Sería prolijo, incluso vanidoso. Aunque sí lo es para la reivindicación del esfuerzo llevado a cabo por y desde AHM, que le ha valido el reconocimiento de cuantas personas y entidades se han acercado a su labor.

Pero no todo han sido luces. Sombras también las hubo, a veces, incluso de una profunda oscuridad. La fortaleza de las organizaciones se vislumbra a la hora de hacer frente a las adversidades. De aquéllas AHM salió fortalecida.

Quedan muchas cosas en el tintero. No podía ser de otro modo. 25 años no se condensan en unas cuantas líneas. Ante la fragilidad de la memoria es más necesario que nunca emplear las armas de la razón y de la ciencia, pero también las del sentimiento y las del cariño por lo cercano, por lo nuestro. Desde esas premisas buena parte de lo que está por venir ha sido ya alcanzado.

Esperemos que AHM siga transitando por ese camino abierto a todos y a todas, siempre jalonado de puntos de encuentro.

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA